

Angela Garmendia Arrieta

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1927-2022)*



Aurkibidea

Biografia



Jaioz geroztik 22 urte bete zituen arte, Urnietako Poxentarri baserrian bizi izan da. Hiru anaia eta sei ahizpa zituen (guztira 10 senide ziren). Poxentarri baserri txikia zela gogoratzen du Angelak. Xoxokako eskolan ibili zen sei urtetik 12ra arte eta ongi gogoratzen du 16 urterekin bileratara nola joaten ziren. [Xanti Lasarte](#)rekin ezkondu eta 10 seme-alaba izan dituzte.

Zintak

URN-004

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2009-11-26
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Alkorta Agirrezabala, Jon - Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Mamia eraman eta txistorra ekarri

- **Erref:** URN-004/002
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:03:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

<p>Amak mamia egiten zuen, eta Hernanira eramaten zituen buru gainean. Etxera itzultzean, txistorra ekartzen zuen.</p>

Transkripzioa

- Eta baita're gue amak itten zun ardin esnia eosten zun eta mami mordoxka bat itten zun, lurrezko txarruetan. Bazun litrokua, bestek litro erdikok'e bai, bi litrokok'e bai ta eamaten zittun Hernanira. Xistera zabal bat bazan, hua burun hartu, txarruetan jarri mamik eta burun hartu eta Hernaniaño pentsa Poxentarretik ordu betian ez zan aillatzen. Ordu beten aillatuko zan Porturaino ta geo kalea.

- Poxentarri nun da?

- Poxentarren, Besabi badakizu. Besabi, ezta're?

- Besabi?

- Jatetxe hoi?

- Bai, Urnietako Xoxoka.

- Hoi da, Xoxokatikan gorogo dao hoi. Montefrio're bado, agroturismo dao baiño bai, bai. Gero eakutsiko dizut, Poxentarri bista-bistan dao baiño urruti dao, Urnieta ordubete ta Hernania ordu ta laurden ta gue ama hoik burun hartu ta jakitten zun zeñentzako zian ta partitzen zittun esne mamik eta gu gaztiak eta bakizu amak ze ekarriko zun zain. Ni ondo goatzen naiz gue amak ekartzen zula txistorra ta hua prejitu ta ogiyan tarten ze goxua zan.

2. Donostiako laranjak eta baserriko lanak

- **Erref:** URN-004/003
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:03:25. **Bukatu:** 00:04:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Ahizpa Donostian ibili zen neskame, eta handik laranjak ekartzen zituen. Laranja haiek, ordea, zapore desberdina zeukaten. Baserrian, zer lan izaten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Ta beste gauza eukitzen det rekuerdia, gure ahizpak Donostin ta serbitzen, eta haik ekartzen zittuela naranjak eta. Ta naranja haik beste gusto bat zuela. Beti goatzen naiz ni. Eta hortxe, holaxe zan.
- Zuek bazenittuen baratzan, bueno...
- Bai, aza, porruk, eta azak eta garai hartan ez zan azelgik eitten. Aza, porrua, ta koliflora ta holako gauzak. Patata, babarrunak eta artuak... Ta holaxe zan. Ta gero iñistorra bildu bere garaiyian, eta belarrak ondu. Ta geo artua bildu, ta artua aletu, errota jun, Urnietan bazan errota, artua eraman, iriña ekarri, talua, ta esnia ta txerriya hiltzen genun, eta bakizu, urdaiya ta txorixuak eta...

3. Gose garaia eta estatuaren babes falta

- **Erref:** URN-004/004
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:04:22. **Bukatu:** 00:05:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Berak ez zuen goserik ezagutu, umeegia zelako gose garaian. Angelak 11 hilabete zituela, aitak istripua izan zuen lanean eta hanka moztu zioten. Garai hartan, ez zegoen diru-laguntzarik istripua izanez gero.

Transkripzioa

- Garai hartan hoixe zan.
- Goseikan?
- Goseik, goseik guk, hiru gaztienak ez. Baiña gure ahizpa zaharrenak eta gaizki pasa zuen e? "Es que", han basarri txiki hartan, ez zeon ezer'e. Ta aitta nik hamaika hillebete nittula, karrillian lanian ai zan, eta hanka moztu zun, nik hamaika hillabete esaten zun amak. Hankamotxa zan nere aitta, ta harrek'e ba ahal zuna eitten zun, baiño garai hartan ez zan gaiñea zeaik, jornalik eta ez zan jartzen oain bezela, inutilidadeik eta. Ta hortxe.
- Zertan itten zula lana esan dezu zure aittak?
- Aittak? Hantxe geuro basarri, karrillian aittu zan, trenbidian, ta Andoaiñen geo bagoiyen batek harrapatu ziyon hanka, eta holaxe geldittu zan.

4. Gazterik hildako senideak

- **Erref:** URN-004/006
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:06:27. **Bukatu:** 00:08:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

<p>Angelaren hiru ahizpa neskame, sukaldari eta ume-zaintzaile joan ziren garaian, tifusa harrapatu zuten. Haietako bat, 17 urte zituela, hil egin zen. Beste senide bat bost urterekin hil zitzaien difteriak jota. 22 urteko anaia gerran hil zitzaien.</p>

Transkripzioa

- Eta geo, bakizu, haik'e hasi zianian neskame, Hernaniko Adarraganian, pastelerin, ta Antxon ta hoik nere ahizpak hazik zian. Hiru ahizpa jun zian: bat jun zan kozinera; bestia, etxeko lanak; eta beste bat, hamazazpi urtekoa, jun zan haurrai kontu eittea. Ta bakizu ze pasa zan? Tifus harrapatu zuen garai hartan, tifus esaten zitzaion kaillenturak, hiru ahizpak. Eta bi ekarri zittuen Poxentarraia. Eta hirugarrena gelditu zan hamazazpi urtekoa han bertan. Ta Poxentarrin jarri zian, ta ez gendun iñorrek izan juteik Poxentarraia. Han lehenon erreka ondo batian uzten zuen jatenak, eta ez zakan iñorrek'e kontajiyuangatik. Ez zan iñor'e pasatzen. Ta haik berrogei egunian egon bihar zuen ohiyian. Eta hamazazpi urteko alaba hil zan, Adarraganian sendatu zala, baiño geo rekaidakin hamazazpi urtekin hil. Hamazazpi urteko neska. Beira gure amak e? Ta beste bat bazun, bost urtekin garrotilluakin hilla.

- Garrotilluakin.

- Bai, harrek'e kaillentura holako hogeita lau ordukua izaten zan hura. Hola. Estutu ta hilla. Ta geo bakizu holaxe, holaxe, holaxe... Ta hogeita bi urteko semia gerran hil. Nik hamaika-hamabi urte nittula.

5. Gerran, baserria frontetik gertu

- **Erref:** URN-004/007
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:08:03. **Bukatu:** 00:11:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra garaian, soldaduen arteko borroka izan zen beraien baserrietik gertu. Beraienara etorritako soldadu askori eman zieten kafea. Borroka hartan hil zituzten mutil batzuen istorioa kontatzen du. Baserri batzuetan, oso gaizki pasa zuten soldaduen etorrerarekin.</p>

Transkripzioa

- Eta nik ezautu dittut Poxentarren, hemen Xoxokatik goro mendi bat bada Pardake. Ta Pardaken zeuden eskubik, soldadu pilla ta beste pilla ezkerak esaten zitzaion Onyiko puntan. Eta hemendikan jun zian, Pardaketikan Onyia haik bialtzea ta jun zien gutxi. Ta gure baserrin, Poxentarren goiz hartan, esnia bazeon behiena ta esnia ta kafesnia ta esnia ta kafesnia eman ziyen soldadu hairi pilla. Ta bat sartu zun tolosarra eta boluntaiyo eoten omen zan ta zittun hamalau urte. Jexus Mari Alberdi Iraola zan. Nik begitan dakat mutil politta. Han utzi motxillak eta gauzak eta frentea, aurea. Ta ze in zun? Onyiko punta jun zan, [...] haundiya jarrita bestia, hua barrena sartu ta bertan hil zuen. Beste mutil haundi bat ekarri zuen hilda. Hango sukaldian luze-luze lurrian jarri zuen, mutil haundiya ematen zun eta beste anai bat omen zun harek eta hua holaxe jarri ta nearrez ta

nearrez, Poxentarren ikusi giñun guk hoi. Ta gelditu zan odol asko han, ta gure amak erreka jun ta igande batian ta erreka odoletan. Hoi ikusi giñan ze pasa zan baiño haik fuerteo eon Onyikoak ta bestiak bat hil, bi hillak eta bestea [...] ta honea Tardakia. Ta haik han geldittu zien, gorrik esaten zitzaian eta hurrungo eunian, berriz, hortikan tropa haundiyoa jun eta Onyikok Santa Barbara bialdu zittuen. Santa Barbara. Hoi ezautu genun guk.

- Eta Poxentarrira juten zian haik, launtza eske edo janari eske edo?

- Han utzi motxilak, motxilak utzi, beren fusillakin, mendia bestiak bialtzea. Frentia, bata bestiai gogor itten, pentsa!

- Eta zuen etxian nolatan sartu zian, esan nahi det?

- Ba, haik libre zuen, dana libre zen oain asko bezela, ordun libre zen. Gauzak uztea ta kitto.

- Ez iñongo permisoik esan...

- Ez, ez, ez, ez. Hemen gaizki ibili zen jendi oso ordun, hemen horko basarrin'e nere ahizpa zeon ta ganadu dana bialdu, libratu ta oso-oso txarki pasa zen. Hemen, Aierdin'e, hor'e soldaduk asko eon zian eta hemen, zea hontan, Xoxoka inguru hontan oso gaizki pasa genun.

- Ta tiro-hotsak eta gauzak?

- Tiro-hotsak ta bai, bai, etxetikan ateatzen baziñen pixkat bista, seitun hasten zian tiroka, handik ta hemendik. Oso gaizki ta geo azken batian.

6. Anaia gerran hil zen

- **Erref:** URN-004/008
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:11:02. **Bukatu:** 00:12:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Gerran hildakoak eta zauritutakoak](#)

Laburpena:

<p>Anaia gerran hil zen Zaragozan. Gorpua etxera ekarri eta hileta egin zioten.</p>

Transkripzioa

- Ta geo azken batian, anaia Zaragozan hil zen frentian. Ta geo gorputzak ekartzen zittuen herrira ta hamazazpi eunea ekarri zuen Urnieta. Guei, hiru, nere hiru ahizpa jun zian Zaragoza ta bizik harrapatu zuen. Hitz ein zuen eta arreba jun zian gau hartantxe hil zan ospitalian. Ta hamazazpi eun Urnieta etorri ta entierroa itten zan eta preparatzen zian mutil koskorrak hamabi urtekoak, hamalaukoak soldadu jantziyak bezala bere kaxketiakin, fusillakin entierroa itteko, aizu! Hau ibillia dao, hau aittona, ibilitta dao hala.
- Ze gogorra izango zen orduen...
- Oso gogorra.
- Senideantzako ta.
- Oso gogorra, gurasoentzat oso gogorra, trixtia.
- Gerrako kontuk ezta?
- Bai, gerrako kontuk baiño txarrak; abioiya "ran, ran, ran", bueno kañoi soiñuk-eta.
- Abioiyak eta hola akordatzen zea zu ikusirikan?
- Ba, akordatzen naiz abioiyak soiñu bat ibiltzen zuen, bildurgarriya, bildurgarriya! Holaxen ba, geo hoita bi urte arte Poxentarren ibili nintzan ni.

7. Poxentarri baserriaren egitura

- **Erref:** URN-004/010
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:13:08. **Bukatu:** 00:15:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Bere jaiotetxea, Poxentarri, nolakoa zen azaltzen du: egitura, komunaren funtzionamendua, sukaldeko tresnak eta altzariak...</p>

Transkripzioa

- Angela, zure etxia nolakua zen, Poxentarri?
- Poxentarri? Etxe pollita zan, etxe polit; mendin ez [...] etxe politta. Ba sartu ta ganbara zabal bat earra sala bezela eta hiru kuarto, lau eta geo sukaldetxo bat. Zan oso politta. Behian ikuillua ta goien sukaldia ta kuartuak ta sala.
- Ta komonik?
- Bai, komona bueno, orduko oholakin-ta indakoa, bakizu. Eta zero bat tapakin, behera, ikuillua-o. Geo ikuillutikan kanpoa bazan desagua, bai.
- Ordun, han, komunian itten zena ze juten zen?
- Ikuillua, bai, gorotzak eta geo, geo salida kanpoa jarri zitzaion ta holaxe.
- Eta sukaldia, nolakoa akordatzen zea?
- Sukalde txiki bat zen, sukalde txiki bat. Ba zan, bueno, su bajua, geo gendun, labetxo koxkor bat, labetxua hola pixkat altun. Han'e ikatzakin itten gendun eta behian sua ta geo tximiniya goitik behera laratza esaten zitzaion, beltz zintzilika. Eta geo, han zeatzen geñun eltziak eta kazuelak-eta hantxe. Ta su aurrian, beste burni batzuk oso polittak ta han brasa earra ta hemen eltzia jarri, zikin-zikin itten zian baiño benga, hondarra errekuakin garbitzen giñun, ordun ez zan alanbreik eta holako gauzik. Hondarra ekarri ta jaboia ta hondarra harrekin garbittu. Hua oso garbiya

zan ta hala itten giñun guk.
- Eta mahaia haundiya izango zan ba?
- Mahaia ez zan haundiya, ez zan haundiya baiño moldatzen giñen, nolabait´e moldatzen giñen.

8. Eskolako maistrak eta josten ikasteko moduak

- **Erref:** URN-004/013
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:16:41. **Bukatu:** 00:18:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Sei urterekin hasi zen eskolan. Han ikasitakoak gogoan ditu: matematika, josten... Maistra oso jatorra izan zuten, Angela. Gerora, beste bi izan zituzten, eta azkena gaizto hutsa izan zen. Josten ikastean, landutakoari buruzko azterketak egiten zizkieten; egun horietako ohiturak aipatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Eta eskolan ibiliko ziñen?
- Bai.
- Zenbat urtekin hasi ziñen eskolan?
- Sei urtekin hasitzen giñen, ordun, garai hartan. Ta ez dakit zenbat urte arte, hamabi urte arte o ze ibiliko nintzen ni. Gutxi. Ta eskola haundia're "suma" ta "restar" ta "multiplicar" pixkat eta puntu itten-ta ikasten gendun hor-ta.
- Zein zenuen maisua eo maistra?
- Maistra, nik maixuik ez det ezautu. Maistra hemen baserri batekoa, Angela zun izena, oso jatorra zan. Harrek puntua ta dana eakusten zun. Baiño ni hiru ezautu nittun. Aurrenekua hua, beste bat Oriyokua ta hirugarrena erdalduna zan hua ta hua gaixto hutsa. Ta horrek behala alde in zun. Hortxe.
- Puntua itten-ta.
- Bai, ni goatzen naiz geo iten zien examiñak e? Eta jartzen zun bakoitzak bazun manteleri, bestia galtzerdi puntuk eta gauza asko eakutsi zun aurreneko maixtra horrek eta geo jartzen zien examiñek ta mahai batian dana bakoitzak beria jarri txukun-txukun ta ni goatzen naiz galtzerdi puntuzko berde batzuk belauneaiñok in nittula, bai. Bai, hala, nik nahi nittun, gehio ez dakit. Batzuk bai, bai jertsia, galtzerdik eta bordatu ta bai, hala itten genun guk hor.
- Geo etxeako're balioko zizuen ba?
- Bai, bai, bai; etxeako balio zuen eta etortzen zien apaizak, meikua eta etortzen zien ordun'e examiñatako eunian.
- A bai e?
- Bai, etortzen zien. Etortzen zien.
- Eta haik ze iten zuen, nota jarri haik'e bai edo?
- E?
- Haik'e nota jarri?
- Haik'e bai notak, klaro, notak. Ta ekartzen zittuen karameluk, gailletak eta bakoitzai partittu ta politta izaten zan, hoixe.

9. Maistraren zigor "zurrinak"

- **Erref:** URN-004/015
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:21:35. **Bukatu:** 00:22:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

Maistrak zigortzen zituen, baina haren mutil-laguna etortzen bazen, zigorra kentzen zien. Orduko zigorrak nolakoak izaten ziren.</p>

Transkripzioa

- Ta maistrak?
- Maistrak hurrungo egunian ez dakigu ze esango zigun, edo ez dakit kastigatu giñun edo ez. Kastigatu're itten giñun e? Ta gertatu zan behin hemen maestra bat bazeon, eta oso neska politta zan, oriyotarra. Eta gero hemen bazeon hor gizon bat ezkondata zeon, ta familiya ta asko zun, ta... Baiño gizon hua "por ahí" ibiltzen zan. Ta ze pasatzen zan? Gu kastigatzen giñun, baiño gizon hura etortzen zitziyon maistrari, ta ordun guri libre. etortzen zan... Eta ordun'e izaten zian.
- Ez zen ordun zuetaz akordatzen, kastigatuta ziñatenik?
- Ya kastigua barkatzen zigun guri ordun, ta gu pozik.
- Hoixe. Hura noiz etorriko zain.
- Bai, gustoa.
- Ta kastiguk eta nola izaten zian, nolakuak?
- Belauniko jarri aurrekaldea, o besuak zabaldua eon, ta hoixe. Txarra gelditzen da e? Belauniko jarrita eskuk nekatuta earki baiño...

10. "Dantza lotu madarikatua"

- **Erref:** URN-004/017
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:23:12. **Bukatu:** 00:25:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>16 urterekin hasi ziren erromerian ateratzen. Iluntzerako, baina, etxera joan behar izaten zuten. Bilera haiek nolakoak izaten ziren azaltzen du. Dantza lotu "madarikatua" bekatua zen garai hartan; eta konfesatzera joan behar izaten zuten, dantza lotua eginez gero. Garai hartan, dena bekatu zen, eta beraiek sinetsi egiten zuten. Bere alaba zaharrenaren garaian ere, oraindik bekatuak indar handia zuen.</p>

Transkripzioa

- Eta geo igandetan ta gu iñoa ateatzen hasteako, hamasei urte ta Xoxokan izaten zan,soiñua, eskusoiñua jotzen zun bat. Horrea etortzen giñan, [...] itten genun baiño illuntzen hastían, etxea danak. Jun biharko. Ta etxen'e zai eoten zien.
- Ta billerak-eta nolakok izaten zien ordun?
- Ordun, soiñua aitzen baldin bazan denak dantzan sueltoan. Baltseokua ez zan libre. Ta pekatu mortala, "dantza lotu madarikatua"-ta esaten zittun

sermoeitan, "dantza lotu madarikatu hoy" ta beida eotea're pekatu ta behin o behin ibiltzea jun giñen konfesatzea.

- Oi ama!

- Oi ama? Hoixe oi ama.

- Ta sermoia eta fuerte?

- Oso fuerte esaten zuen: "Dantza lotu madarikatu hoi pekatu mortala" ta Jesus! Ta konfesatzea ta ze penitentzik ematen zittuen. Ze gaixuak giñan gu.

- Ta eozein gauza txar itten zenuela iruituko zitzaizuen?

- Izugarriya, dana pekatua. Ta xinixtu itten gendun. Ze nahi dezu? Dana xinixtu beak esaten zuna.

- Eta konfesatzea korrika?

- Korrika konfesatzea. Amai txokolatia harrapatzen bagenion´e. Gue neska zaharrenak'e honbesteaño ez baiño hua zaharrenak'e konfesatzea txokolatia hartzen bazioten ta junak izango die, zaharrenak. Hirurogei urte ittea dijoa nere alaba zaharrena ta hoik konfesatzea jungo zien holako gauzak. Gazteneako ya espabilatu zien baiño. Ene!

11. Umeei eta etxeko lanei eskainitako bizimodua

- **Erref:** URN-004/019
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:29:40. **Bukatu:** 00:31:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Egun normal bat nolakoa izaten zen azaltzen du. Umeei eta etxeko lanei eskaini izan die bere bizia.</p>

Transkripzioa

- Kontatuiazu gutxi gorabehera zure eun bat, badakit urtaro diferentetan pues lana diferente itten dala baserriyan.

- Bai.

- Goizian jeiki ta ze?

- Hasi su hortan ta ordun ez zan butanoik e! Eta sua in ta iltzia jarri eta hasi ta etxia moldatu ta umiak moldatu eta geo gizonan atzetik, ganaduta o atxurrea o danata. Gizonan atzetik, mendia joan behar bazan garuan billa're baita're. Nik egiya esan, etorri ta maiatzen ezkondu ta apirillian azkenik jaio zan gue alaba zaharrena, ni ez nitzan iñoa ateatzen, etxeko zea izandu naiz oso, umiak eta etxeko lanak. Nik besteik ez det izandu egiya esan.

- Nahikua bada!

- Bai, asko.

- Nahiko lan.

- Pentsatu hiru zaharrenak hamabost hillabeten diferentzin izan zien, hiru. Bestiak hamasei hillabete, beste batek hamazazpi eta hortxe danak. Pentsatzu hogeitertian hamar. Ni hortxe pasata, hementxe Aierdin buelta nere bizimodua ta azken batian poza izaten dezu hoi, txintxo-txintxo.

12. Gurelesa alde batera utzi, eta kalera esnea saltzera

- **Erref:** URN-004/020

- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:31:09. **Bukatu:** 00:34:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Gurelesari ematen zioten esnea, baina ez zen batere errentagarria; eta, orduan, Hernanira hasi zen eramaten esnea. Hasiera nolakoa izan zen kontatzen du. Behor gainean eramaten zuen esnea baserritik kalera. Gerora, galarazi egin zuten esnea etxeetan partitzea.</p>

Transkripzioa

- Baiño zu etxetikan kanpoa're lana iña zea, merkatura jun-etorri ta?
- Bai, Hernania. "Es que" Gurelesai ematen geniyon esnia eta oso gutxi patu zun. Ta nik esaten nun: "baiño hau ez da posible, ez gea iñondik iñoa aterako". Eta maiatzian izandu zan, hemen bi zien alaba hok jaio zan maiatzan hogeian eta ni hasi nitzan San Juanetan Hernanin esniakin. Ta Hernanin, ordun, etxe berri asko in zan ta aurrena hasi nitzan plazan ta han'e beidatu txarra itten zuen e ta bazan emakume bat, Argindeikua zan, aman bat harrek esan zian: "Zu jarri nere onduan, lasai" eta "hemen danak bizi bihar deu-ta". Esnia. Geo, beste batek esan zian: "Nik eamango dizut "calle" Elkanoa, etxe berrik in dia ta jende asko ai da sartzen erdaldunak, igual da". Han, hantxe hasi nitzan etxez etxe esnia ta in nun parrokiya nahi nun haiñe. San Juanetan hasi nitzan ta San Juanetan pasteleritan ta eamaten nittun esne guztik airian baiño geo San Juanak pasa zianian, artzaiek in [...] eta gaixki eoten nitzan. Baiño in nittun nahikuak. Bi bihor hartu Aierdin eta bihorraikin Hernania, esnia partittu, enkarguk in, geo esniak ematean amon harrek esan zian "zuk baldin bazu patata ta baldin bazu azak eta baldin badittuzu arraultzak ekarri ta esnian anparuan asko launtzen dut". Halaxe ibili nitzan. Ta geo honek atea zun karneta eta hoi hasi zan ta geo alabak, esnia partittu ta lanea.
- Baiño zu behintzat kotxiak eta hoi baiño zaldiyakin?
- A, bihorraikin. Bai, bai. Buelta asko oiñez e hemendikan Hernania.
- Nola kargatzen zenun zeneukan guztia bihorran gaiñian?
- Bueno xestuk izaten zittun bihorrak eta etxetik ateatzeko etxekok launduta-eta, bai, bai, errez, errez. Gorra izandu naiz ni egitan, osasunaz ta bueno, bueno.
- Nola hasten da, non gogua zangua han?
- Hoi da, bai, bai. Eta geo in bihar zendun gaiñia, bestela ez zeon mantendu're itteik. Zea lotsagarrikeri bat patu zuen esnia ta hara hasi nitzan bai ta holaxe pixkana-pixkana geo galazi zuen esnia partitzia.
- Hoi're bai?
- Galazi in zuen etxeetan partitzia esnia, bai. Ta ordun, utzi in bihar izandu gendun eta ordun...
- Zeatikan galazi zuen ba?
- Hoi Gurelesak-eta hoixek. Esne frexkua saltzia galazi in zuen ta utzi in gendun ta ordun, orduako hasi zen hau'de ya Donostia jutun zan lanea ta esnia utzi ta bakoitzak bere tokin lanian.
- Hernaniko plazako merkatu hortan urte batzuk in zenitun edo?
- Bueno ingo nittun nik lau urte, hiru-lau urte bai, ez dakat goguan ondo baiño.

13. Ura lortzeko moduak, eta zenbait istripu

- **Erref:** URN-004/023
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:36:00. **Bukatu:** 00:37:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Etxean, euri-ura aprobeztatzen zuten. Iturrian garbitzen zituzten arropak. Behin, behor gainetik erori zen, haurdun zegoela, zazpi hilabeteko.</p>

Transkripzioa

- Urik ba al zenuen etxean?
- Ura azkenian jarri gendun teillatukoa. Bozaera in borda gaiñian eta teilla, ebia iten zunian depositua betetzen zan eta erropa garbitzeko-ta primerakoa. Beheratu iten zittun erropak.
- Bozadera esan dezu?
- Bai, depositua, depositua in gendun. Hoi ez dakit zenbat litrokua izango zan. Oantxe bota dute. Haundiya zan eta ura eltziak-eta jartzeko ta hor itturittik eamaten gendun beti, hoi bai eateko ta hoi bai baiño ontzik garbittu ta arropa garbittu ta bakizu. Barrilloa burun hartu ta horrea itturria erropakin ta behin eroi in nitzen barrelloa burun nula ta honen aittak, aittagiñarrebak esan zian: "A ze garaiyen in dezun, eroi hoixe!". "Que va", ez zen ezerre pasa.Ez. Beste eun batian, alaba gaztena jaiotzeko zeola zazpi hillabetekoa neon ta bihorren gaiñian netorren Armindei bakizu? Portutik gorao etorri ta gora. Bihorren gaiñin netorren ta bihor horri zerbaiten iruipena jarri zaio, saltatzen ta ni atzeko aldea seko eroi nitzan, aizu. Bihorran gaiñetik zazpi hillabeteko estadun neola, ene!
Konozimentua're jun zitzaiten pixkat ta bihorra bere birian martxan ta nik bihorrai heldu xisterotik eta nik ya ikusten nun baserriya, nondik pasa bihar nun. Iruitzen zitzaiten atzeaka nijoala. Ta geo basarri hua ezautzen nun ta hortik bihorra ondo dijoa ondo dijoa bide puxka batian etorri nitzan halaxe, mareatua bezela, zazpi hillabeteko. Ez zitzaten ezerre pasa. Primeran jaio zan.

14. Azken bi umeen jaiotzen gorabeherak

- **Erref:** URN-004/024
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:37:56. **Bukatu:** 00:40:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Etxean izan ditu zortzi seme-alaba. Bederatzigarrena ospitalean izan zuen, "parto sin dolor" egiten zutelakoan. Baina ez zen hain erraza izan. Hamargarren semeak 4,7 kg zituen jaio zenean.</p>

Transkripzioa

- Ordun umiak nun jaiotzen zian?

- Ba zortzi izandu dittut basarrin, hementxe Aierdin. Komadrona oso bizkorra gendun Urnietan, komadronakin. Zortzi hortxe ta geo familiya're haziya ta alaba biarrena mutillakin ta geo etxian zea txarra jartzen zan, bakizu haur ondorian ta jun nitzan ospital probintzialea, "partos sin dolor" itten zuela. Hola ni bai pozik. Jun nitzen oso ondo zatorren, ondo zatorren, ondo zatorrela ta etxian bezalaxe ta etxian baiño komadrona hau bizkorraua hango enfermera baiño. Han jaio zan. Ta geo hamargarrena jun nitzan residentzia. Bazittuen ba ume tartea bi urte t'erdi o hola, bi gaztienak. Ta horrekin jun nitzen residentzia. Ta bakizu zenbateko mutilla jaio zan? Lau ta zazpirehun. 'Urtain txikiya' esaten ziyoena. Noizbait 'e jaio zan, aizu. Han bildu zian ikasten ai zianak, zea partera ikasten ai zianak ta komadrona edadekoa tokatu zitzaten ona eta jaio zan [...]. Ni baiño aberatsagoik ordun ez zan iñon e! Nik esaten nun, berrogeita bi urte ta esaten nun bueno ez det ba berriz izango eta pozik! Gaiñea lehen semea nun ta hoi beste biarrena. Pasillun eon nitzan [...] osuan baiño pozik eondu nitzan ta. 'Urtain txikiya' esaten ziyon, izugarritzko mutil puxka. Ta bitartean esaten zien nei Urnietakua hemen haur haundiya dator ta zu ez hartu ez esneik eta ezerre. Baiño naturaleza honek ez daki, ez nun zeatu, baiño haundiya jaio zan ta ondo jaio zan. Besoa atera omen ziyoen jaiotzen eo.

- Kosta ingo zitzaion [...].

- Ta komadrona zahar horrek esan zian bildur haundiya zioela haur asko izandutako emakume haidi matritza eoten zala oso flojotua ta ez zula indarrrik itten, ta bildur haundiya. Baiño izan zala partok ikasten ai zienek eta dena betia.

15. Etxekoen artean moldatutako bataioa

- **Erref:** URN-004/025
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:40:33. **Bukatu:** 00:41:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Haurra izan ostean, ahizparen etxean egon zen astebete. Bataiora, ama ez zen joaten; gero izaten zen elizan sartzea. Etxekoen artean moldatu zuten bataio osoa.</p>

Transkripzioa

- Ta gero, ahizpa Donostin banazken bi ta han pasa nittun zortzi egun ahizpan etxian. Etorri, otsaillian jaio zan eta behala bataiatzen giñun ordun. Ta bataiua izandu zan gue etxian oso politta. Alaba zaharrenak eta seme zaharrenak padrinuak. Koro, Oialumekua, hirugarrena zan, harrek in zun iñudetza aurea eaman, ordun hala izaten zan. Haurra bestek eamaten zun. Ordun amak ez giñen juten bataioa gu.

- Ta zer dela-eta?

- Ordun, garai hartan, ez zan usatzen. Padrinoa ta madrina ta aitta. Ama [...].

- Eta zergatik ez ziñan zergatik ez zian amak juten? Oso goiz zen igual?

- Ez dakit zeatik. Gero eliz sartzea juten giñan. Eta oain hildako alaba hoi [...] zan kozina ikasten ta harrek jarri zun bazkaiya.

- Ze politta, etxia dena moldatua.

- Oso. Etxen dana moldatu.

- Apaiza kanpoko ezta?

- Apaiza're herrin apaiza zeona.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com